

HITZAREN ESKOLA / IRAKASLEEN FITXA

IRAKASLEA: Oier Guillan

DATA: 2022ko otsaila

AZALPENA:

Hitzaren Eskolako hilabeteko dinamika.

AURKIBIDEA (saioen eskema laburra)

- 1. Saioa**
Aurkezpena arte instalazio baten bitartez.
Testuen irakurketa fisikoa publikoa espazioan modu ezberdinetan jarriz.
- 2. Saioa**
Beroketa fisikoa gorputzaren eremuan.
Bakarkako deriba Azpeitian zehar.
Deriba komentatu eta mapa emozionalak marraztu.
- 3. Saioa**
Tranpa performatiboa: Gorila bosniarra.
Erreferentzien paisaiaren aurkezpena (soinuak, bideoak, liburuak, filmak...).
- 4. Saioa**
Beroketa fisikoa gorputzaren eremuan.
Deriba maskarekin Azpeitian zehar, hiru taldetan.
Ondoren, espedizio honetako bitakora kaiera ideiarene aurkezpena: abezedarioak.
- 5. Saioa**
Hiru bideoen aurkezpena. (La gran belleza, Calle, Smoke).
Argazki zaharrekin idazketa automatiko ariketa.
- 6. Saioa**
Beroketa fisikoa.
Deriba arte instalazioekin, Dinamoko espazio ezberdinetan.
Ainhoa Alberdiren butoh piezarekin interaktuatu.
Esperientziaren inguruko solasaldia.
- 7. Saioa**
Bakoitzaren abezedarioaren (bitakora kaiera emozionalaren) aurkezpena,
bakoitzak forma ezberdin bat emanda.
- 8. Saioa**
"Bingo nudista" ekintza parking-ean.

1. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Dinamikaren aurkezpena. Aldez aurretik etxekolan batzuk bidali dizkiet: test poetiko bat erantzun, eta testu bat ekartzea, oso ondo definitzen dituena (norberaren testua, edo beste norbaitena).

Testaren erantzunak modu performatibo batean irakurri ditugu, pauta batzuekin, neuk aurretiaz prestatutako arte instalazio baten erdian.

Irakurketaren ondoren, aurkezpen "normala" egin dugu.

Bigarren zatian, bakoitzak ekarritako testua publikoa espazioan nolabait kolokatuz egitea eskatu diet. Ideia norberak testu horren eragina handitzeko publikoari pautaren bat ematea da, publikoarekin espazioan irudi bat sortuz, mugimendu bat proposatuz...

2. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Bakarkako deriba situazionista bat egin dute Azpeitian zehar. Guaxapez mezuak eta pautak bidaltzen joan naiz: nola hasi, zer pentsamendu eduki barruan, zeri erreparatu ibilian, audioak bidali entzuteko (Alaia Martin eta Anjel Lertxundirenak), eta abar. Bueltakoan, Dinamon, egindako ibilbidearen mapa emozionala marraztu eta aurkeztu diete besteei.

Ariketa honen helburua begirada aldatzea da. Ausazkotasunari irekiak egotea, kaosa idazketaren parte bilakatuz. Norberak esan edo idatzi nahi lukeen horretara beste leku batetik gerturatzea, arrazoiari, aurreiritziei eta auto-epaiei iskin eginez, jolasa eta gomuta uztartuz.

3. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Tranpa performatiboa: harrera egin diet kalean, eta sartzeko pauta batzuk eman. Sartzekoan gorilaz jantzita topatu naute, ustez, mikroarekin maskaren zentzuari buruzko testu bat irakurtzen nuen bitartean. Amaitutakoan, gorila performance bat egiten hasi da, minimalista, eta atzetik azaldu natzaie, ikasleak ezustean hartuz (ezkutuan nengoen benetako mikroarekin testua irakurtzen, eta enmaskaratua aktore gonbidatu bat zen, nire arropa jantzita). Ondoren, ikasleek

aurreko saiotik zuten informazio bat erabili dut, gorilarekin fikzio bat asmatzeko: gorila pasa den astean neuk kalean benetan ezagututako bosniar langile bat dela sinetsi dute (haietako batzuek ere izan ziren gertakizun kasualaren lekuko, informazio hori bazuten beraz). Gorila gonbidatu dut saio osoan bertan geratzera, ikasleek elementu distortsionante batekin elkarbizitza egiteko egoera "normal" batean. Klasea "normal" egin dugu beraz, baina gorila baten presentziarekin.

Klasearen berezko helburua erreferentzien paisaia bat eskaintzea izan da: ardatz nagusia espedizioak izan dira, eta espedizioen ideiak izan dituen islak literaturan, zineman eta oro har artean.

Amaieran gorila nire lagun euskaldun bat dela desbelatu da, ikasleak berriz ere ezustean hartuz.

Helburua: begirada magikoan murgiltzea, ikasleek fikzioa eta errealtatearen arteko mugak ezbaian jartzea, idazketaren zentzua zabaltzea: noiz hasi da benetan idazketa? Hitzak paperean/pantailan jartzean edo, aurretik, idazten hasterako sortu den testuingurua (tranpa performatiboa) idazketaren parte izan da? Zein da, funtsean, arteak errealtatean eragiteko duen ahalmena?

Poloetarako espedizioen iruditeria performanceen munduarekin elkartzen hasi gara, eta bidaia/ekintza metaforikoekin, zeinetan artelana haiei buruzko dokumentazioa bera den, eta ez gertakizuna/ekintza bera.

Ikasleak begirada aldatzea eta edozertarako prest egotea izan da xedea, ikastaro amaiera arte luzatuko den giro bat sortzea zeinean dena den posible.

4. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Beroketa fisikoa egin dugu, taldea sortzen joateko eta buruaren zama abandonatzeko helburuarekin.

Deriba egin dugu hiru taldetan Azpeitian zehar. Lehenengo biak eskutik helduta animalia maskarekin, pautak propio batzuekin: ibili ezer arrarorik egin gabe, noizean behin geratu eta idatzi barrutik pasatzen ari zaien guztia, eduki herritarren batekin kontakturen bat, eta beste.

Bigarren taldea detektibe emozionalak izan dira, eta enmaskaratuak jarraitu behar izan dituzte, txostenik ahalik eta zehatzena osatuz (bideoak, argazkiak, audioak, orduak, kaleen izenak...).

Hirugarren taldekoak extralurtarrak izan dira, enmaskaratuak baita ere. Haien helburua detektibeak jarraitzea eta txostena osatzea izan da, lurarren eredu direlakoan.

Hiru taldeek ez zuten besteen asmoen berri. Amaitutakoan guztiek esperientzian zehar idatzitako testuak irakurri ditugu jarraian, eta kontrastez beteriko kontakizun poliedriko bat osatu da. Amaieran desbelatu ditugu pautak eta partekatu ditugu gertatutakoak.

Azkenik, espedizio honetako bitakora kaiera egiteko proposamen bat egin da: abezedarioa. Lehenik eta behin bete gabeko desio pertsonal bati loturiko abezedarioa idatzi dute. Abezedarioak entzun ditugu, baina desioak zeintzuk diren esan gabe. Ikastaroaren amaiera arte abezedario hori beste egunetako materialekin (hitzak, erreferentziak, argazkiak...) osatu beharko dute, eta azken egunean forma bat emanez besteei aurkeztu (besterik gabe irakurtzea ez den zerbait: argitalpen bat, performance bat, bideo bat, power point bat... edozer).

5. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Sophie Calleri buruzko mini erreportajea, *Smoke* filmako zatia eta *La gran belleza* filmako zatia ikusi eta aztertu ditugu ditugu, inspiratzeko. Helburua espedizio performatiboan ideian sakontzea izan da, nola osatu desira baten inguruan ekintza performatibo-metaforiko bat, denboran zehar luzatzen den ahalegin (askorentzat) absurdu bat eginez, errealitatean ematen dena eta dokumentatzean artelana (agian literatura) bilakatzen dena.

Nire bilduma propioko argazki mordoa eraman dut, bigarren azoketan lortutakoak, eta mahaian zabaldu. Bakoitzak bat aukeratu du, eta pertsona horren biografia asmatua labur idatzi. Ondoren, pertsona horren asetu gabeko desira bat imajinatu dute. Azkenik, gaur egunetik ikasleek desira hori iraganeko haien izenean asetzeko asmatuko luketen bidaia performatiboa irudikatu dute, eta besteei aurkeztu.

Amaieran, aurreko egunean landutako haien desira propioak hartu eta bidaia performatibo pertsonal bat diseinatzen hasi dira.

6. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Beroketa fisikoa eta jolasak.

Deriba arte instalazioekin uztartua, Dinamoko espazioetan: aukeratu normalean besteei gustura kontatzen diegun gure bizitzako pasadizo bat. Sartu gezurren bat tartean. Aukeratu Dinamoko espazio bat eta bertan arte instalazio bat egin, Dinamon topatutako bestelako objektuak integratuz; instalazio horretatik kontatu pasarteak besteei.

Amaieran, tranpa performatiboa planteatu diet: goiko ganbaran Ainhoa Alberdi azaldu da ezustean, eta Butoh pieza bat eskaini die. Beraiek ikusi bitartean idatzi egin dute burura datorkiena. Ondoren, testua Ainhoaren albotik errezitatu dute, eta Ainhoak haien ahotsa dantzatu du, musika balitz bezala, inprobisatuz. Ondoren, esperientzian gertatutakoa partekatu dugu.

7. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Abezedario/Bitakora kaieren aurkezpena, eta bakoitzak bere desirarekin pentsatutako bidaia performatiboaren azalpena.

Emaitza itzela izan da: ikasleek oso lan txukunak egin dituzte, oso formatu ezberdinetan, testua eta bestelako idazketak uztartuz, irudiak, audioak eta ekintzak integratuz.

Hilabetean gertatutakoaren balantzea egin dugu eta itxiera bat eman diogu. “Bingo nudista” izango dena prestatzen hasi gara.

8. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Bingo nudista ekintza performatiboa antolatu dugu Dinamoako parking-ean. Helburua ikastaro osoan erabilitako kontzeptuak akziora eramatea izan da: ausazkotasuna nola erabili sormenerako, espedizio performatiboaren ideia, fikzioa eta errealitatea nahastea, publikoa deriba txiki batean sartzea, irudi deskontzertanteak sortzea, ikastaroan zehar ikasleek idatzitako testuen audioak erabiltzea, nola edo hala ikasleak ere fisikoki presente egotea...

Ekitaldia, “ikuskitun” izaerari uko egin zionez, apur bat “arraroa” izan da, taularatze gisa ulertuta behintzat (Balizko *Bingo Nudista 2.0.* batentzat oso argigarria, bestetik). Kasu honetan, esperientzia osoa autoetan parking-etik atera zen publikoak bizi izan zuen, batzuek behintzat. Bingoa irabazi eta autoetan atera zirenei sobre bat eman zitzaien diruarekin, ezezagun bat pote batera gonbidatzeko (edo B plan gisa, ezagun bat galdera gako bat eginez solasean). Publikoko bik gutxienez egin zuten, eta haien feed back-a bikaina izan zen. Niretzat hor hartu zuen esperimenduak zentzu osoa.

Egun horretan ikastaroaren ikuspegitik itxiera borobila izan zen. Emanaldi ireki gisa, ordea, agian potentzial itzela ikusi nion, emaitza baino gehiago. Aurrelanketa ezberdina egin beharko litzateke balizko 2.0. batean, baina hori beste espedizio bat izango litzateke...

BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK (erabilitako liburu, pelikula, artelan eta bestelako artefaktuak; egile eta iturri nagusien erreferentziak eta estekak)

ERREFERENTZIAK:

Filmak:

[Werner Herzog](#), *Encounters at the End of The World*.

Isabel Coixet, *Nadie quiere la noche*.

Paolo Sorrentino, *La gran belleza*.

Koldo Almandoz, *Sipho Phantasma* (azkenean sakondu gabe, irakasle dagoelako).

Wayne Wang, *Smoke*.

Liburuak:

Juanra Madariaga, *Espedizioa*.

<https://old.uberan.eus/?gatzetan-gordeak/elkarrizketak/item/juanra-madariagarekin-solas-ean>

Erling Kagge, *Filosofia para exploradores polares*.

Alicia Kopf, *Hermano de hielo*.

<https://old.uberan.eus/?amuak/item/izotzezko-jendea-eta-literatur-esplorazioak-alicia-kopf-en-eskutik>

Paco Gomez – Hilo Moreno, *Volveras a la Antartida*.

Werner Herzog, *Caminar sobre el hielo*.

<https://old.uberan.eus/?amuak/item/werner-herzog-biografien-gainetik-ibiltzeaz>

Julio Cortazar – Carol Dunlop, *Los astronautas de la cosmopista*.

<https://old.uberan.eus/?amuak/item/bizi-zarelako-irakurri-edo-irakurtzeko-bizi>

Mikelazulo, *Ñami Mishakunchic*.

Josephine Diebitch, *Diario Artico*.

Sophie Calle, *El juego del otro*.

<https://old.uberan.eus/?amuak/item/sophie-calle-ren-hitzak>

Paul Auster, *Leviathan* (Maria Turnerren pasarteak).

Loturak:

Situazionismoa:

<https://www.geografiainfinita.com/2021/03/situacionismo- psicogeografia-y-deriva-una-cartografia-de-emociones/>

Dadaismoa: <https://www.ejemplos.co/10-ejemplos-de-dadaismo/>

Bideo zatiak:

Filma: *La gran belleza*.

<https://www.youtube.com/watch?v=TfPEplXYuQw>

Filma: *Smoke*

<https://www.youtube.com/watch?v=cdSqCQ8A3TY>

Sophie Calle:

<https://www.youtube.com/watch?v=EcuXIO2xRMU>

<https://old.uberan.eus/?amuak/item/sophie-calle-ren-hitzak>

Filma: *Nadie quiere la noche*.

<https://www.youtube.com/watch?v=vyGfevs9WIM>

Filma dokumentala: *Encuentros en el fin del mundo*.

FILMA: <https://www.youtube.com/watch?v=xOKn85SVO9w>

<https://www.youtube.com/watch?v=s9IfNJ6X4Pk>

Materialak:

L'Alacran eta Bilboko Alondegia, *Catalogo de deribas*.
Metrokoadroka kolektiboaren ikastaroak eta sortzeko formulak.

